



ALKATETZA DEKRETUA

DECRETO DE ALCALDIA

Usansoloko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aztertu da. Bertan, jarraian deskribatzen den dirulaguntza-lerroa ezartzea aurreikusten da.

Visto el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Usansolo en el que se prevé el establecimiento de la línea de subvenciones que a continuación se describe.

1.1. Kulturako, aisiako eta astialdiko jarduerak, programak eta proiektuak, taldeei, elkarteei eta pertsona fisikoei zuzendutakoak (gazteak eta hirugarren adinekoak barne hartuta) <i>Actividades, programas y proyectos culturales, ocio, tiempo libre (incluye juventud y tercera edad). Beneficiarios grupos y asociaciones, pero también personas físicas.</i>	Lehiaketarik gabeko prozedura Concurrencia simple
---	---

Ikusi dira Usansoloko Udalaren kontserbatorioetan edo musika-eskola publikoetan musika-ikastaroak egiteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak (BAO, 182. zk., 2025eko irailaren 24koa).

Vistas las bases reguladoras para la concesión de subvenciones ayudas para la realización de los cursos de música, en conservatorios o escuelas de música públicas del Ayuntamiento de Usansolo aprobadas definitivamente (BOB núm. 182 de 24 de septiembre de 2025).

Kultura eta kiroleko erdi-mailako teknikariak 2026ko ekainaren 17an emandako ebazpen-proposamena aztertu da.

Vista la propuesta de resolución emitida por el técnico medio de cultura y deporte con fecha 17 de junio de 2026.

Idazkari-kontuhartzaileak 2026ko ekainaren 17an egindako aurretzako fiskalizazio mugatuko txostena ikusi da.

Visto el informe de fiscalización previo limitado emitido por la secretaria-intervención con fecha 17 de junio de 2026.

Oinarri horiek bat etorri, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 23.2 artikuluan ezarritakoa betez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 s) artikularekin lotuta, honako hau

De conformidad con las citadas bases y en cumplimiento de lo establecido por el artículo 23.2 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, en relación con el artículo 21.1 s) de la Ley 7/1985, de Bases de Régimen Local,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

LEHENENGOA. - 2025/2026 ikasturtean musika-ikastaroak kontserbatorio edo musika-eskola publikoetan lehiarik gabeko prozeduraz egiteko deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea, ebazpen honen eranskinean agertzen den testuarekin.

PRIMERO. - Aprobar la convocatoria y la concreción de las bases reguladoras para la realización de los cursos de música, en conservatorios o escuelas de música públicas, durante el curso 2025/2026, por procedimiento de concurrencia no competitiva, con el texto que figura en el Anexo de la presente Resolución.

BIGARRENA.- Deialdi honek dakarren gehieneko gastua baimentzea, 2026ko aurrekontuaren 3261.48001 aurrekontu-aplikazioaren kargura.

SEGUNDO.- Autorizar el gasto máximo que conlleva la presente convocatoria con cargo a la aplicación presupuestaria 3261.48001 del presupuesto del año 2026.

HIRUGARRENA.- Deialdiaren testua Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

TERCERO. - Publicar el texto de la convocatoria en la Base de Datos Nacional de Subvenciones y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

LAUGARRENA.- Dekretu honen berri ematea egiten den hurrengo ohiko osoko bilkuran.

CUARTO.- Dar cuenta del presente Decreto en la próxima sesión plenaria ordinaria que se celebre.

ALKATEA / ALCALDE

Juan Agustín Aizpuru Izaguirre



Usansoloko Udala
Ayuntamiento de Usansolo

MUSIKA-IKASTAROETAN, KONTSERBATORIOETAN EDO MUSIKA- ESKOLA PUBLIKOETAN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA

CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA LA REALIZACIÓN DE LOS CURSOS DE MÚSICA, EN CONSERVATORIOS O ESCUELAS DE MÚSICA PÚBLICAS

LEHENENGOA. – Dirulaguntzaren xedea

Dirulaguntza honen helburua da musika-ikastaroetan, kontserbatorioetan edo musika-eskola publikoetan parte hartzea sustatzea.

Zehazki, Usansoloko familiei dirulaguntza emango zaie musika-ikastaroen gastuei aurre egiteko, kontserbatorioetan edo musika-eskola publikoetan, musikarako sarbidea erraztuz.

BIGARRENA. – Aurrekontu-partida

2025eko ekitaldian esleituko diren dirulaguntzetarako aurrekontua 20.000 eurokoa izango da.

Deialdian zehar, deialdia onartzen denetik dirulaguntza eman arte, aurrekontu-zenbatekoa gutxitzen bada, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu egingo da, defizitik egon ez dadin.

Laguntza-deialdi honen ondoriozko guztizko gastua 3261.48001. aurrekontu-partidaren kargura egingo da.

HIRUGARRENA. - Dirulaguntzaren zenbatekoa

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa, gehienez, matrikularen kostuaren eta eskola-aldi bakoitzeko klaseen kostuaren % 75 izango da.

Baietsitako eskabideen kopurua oinarri hauen bigarren puntuari aurreikusitako gehienezko aurrekontu-kreditua baino handiagoa bada, laguntza guztiak proportzionalki murriztuko dira.

LAUGARRENA. – Personas beneficiarias y requisitos para la concesión

Honako hauek izan daitezke dirulaguntza hauen onuradun:
Pertsona fisikoak.

PRIMERA. – Objeto de la subvención

El objeto de esta subvención es incentivar la participación en la realización de los cursos de música, en conservatorios o escuelas de música públicas.

Concretamente, se subvencionarán a las familias de Usansolo en el sostenimiento de los gastos de los cursos de música, en conservatorios o escuelas de música públicas, facilitando el acceso a la música.

SEGUNDA. – Partida presupuestaria

La disponibilidad presupuestaria para las subvenciones a adjudicar para el ejercicio 2025 se fija en los 20.000 euros.

Si en el transcurso de la convocatoria, desde la aprobación de la convocatoria hasta la concesión de la subvención, se produjera una minoración en la cuantía presupuestaria, la cuantía de la subvención se ajustará para evitar la existencia de déficit.

El gasto total resultante de esta convocatoria de ayudas se hará con cargo a la partida presupuestaria 3261.48001.

TERCERO. - Cuantía de la subvención

El importe subvencionable será como máximo el 75% del coste de la matrícula y el coste de las clases de cada periodo escolar.

En el supuesto en el que el número de solicitudes estimadas conlleve un importe superior al crédito presupuestario máximo contemplado en el punto segundo de las presentes bases, se procederá a la reducción proporcional de todas las ayudas.

CUARTA. – Personas beneficiarias y requisitos para la concesión

Podrán ser beneficiarias de las presentes subvenciones:
Personas físicas



Usansoloko Udala
Ayuntamiento de Usansolo

Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Usansoloko udalerrian erroldatuta egotea, eskaera egin baino urtebete lehenagotik gutxienez.
- b) Musika publikoko eskola edo musika-kontserbatorio batean matrikulatzea.
- c) Deialdi bakoitzean zehaztutako ikasturtean gutxienez eskolen % 70era joan izana. Alderdi hau dagokion musika eskola/kontserbatorioaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.
- d) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Usansoloko Udalarekikoak.

Las personas beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) Estar empadronadas en el municipio de Usansolo con al menos un año de antigüedad a la fecha de la solicitud.
- b) Matriculación en una escuela de música pública o conservatorio de música.
- c) Haber asistido como mínimo al 70% de las clases durante el curso escolar determinado en cada convocatoria. El presente extremo se acreditará mediante certificación de la escuela de música/conservatorio correspondiente.
- d) Estar al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y con el Ayuntamiento de Usansolo.

Bazterketak:

Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan edo Usansoloko Udalaren dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak arautzen dituen Aginduan jasotako egoeraren batean dauden pertsonak. Zehazki, eskatzaileak egunean izan beharko ditu udalarekiko eta gainerako administrazioekiko zerga-betebeharrak.

Exclusiones:

No podrán obtener la condición de beneficiarias aquellas personas en las que concurra alguna de las circunstancias contempladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, Ley General de Subvenciones o en la Ordenanza-Reguladora de las Bases Generales para la Concesión de Subvenciones Municipales del Ayuntamiento de Usansolo. Concretamente, la persona solicitante deberá estar al corriente de sus obligaciones tributarias para con el Ayuntamiento y demás administraciones.

BOSGARRENA.— Dirulaguntza eskatzeko epeak eta modua

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko irailaren 7an hasiko da eta hurrengo 20 egun naturaletan egongo da indarrean.

Epe horretatik kanpo ez da inolako eskaerarik onartuko. Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira, eta artxibatu egingo dira beste izapiderik egin gabe.

Eskabidea Usansoloko Udalaren egoitza elektronikoa (www.usansolo.eus) aurkeztu beharko da, edo paperean, Udaleko Sarrera Erregistroan (Ander Deuna 29, Txapelena), 8:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera. (Dagokion dokumentua betez).

QUINTA.— Plazos y forma de solicitar la subvención

El plazo para presentar las solicitudes comenzará el 7 de septiembre de 2026 y estará en vigor durante los siguientes 20 días naturales.

No se admitirá ninguna solicitud fuera del plazo indicado bajo ningún concepto. La presentación de solicitudes fuera del plazo mencionado dará lugar a la desestimación de dichas solicitudes, archivándose las mismas sin más trámite.

La solicitud deberá ser presentada a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Usansolo (www.usansolo.eus) o en papel en el Registro de Entrada Municipal, sito en Ander Deuna 29 (Txapelena), en horario de 8:00 a 14:00 horas, de lunes a viernes. (Rellenando el formulario correspondiente).



Usansoloko Udala
Ayuntamiento de Usansolo

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako gainerako lekuetan ere aurkeztu ahal izango da eskaera.

Asimismo, la solicitud se podrá presentar en los demás lugares legalmente previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.



AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

DOCUMENTACIÓN PRESENTAR

Musika-eskola publikoetan edo kontserbatorioetan matrikula edo ikastaroen gastuak ordaindu izanaren ziurtagiria

Comprobante del pago efectuado en concepto de matrícula y/o gastos de cursos en escuelas publicas de musica o conservatorios

Musika eskolaren / kontserbatorioaren helbidearen ziurtagiria, datu hauekin: ikaslea, egindako maila eta kurtsoa, gaitutako maila eta bertaratze-ehunekoa. Hala badagokio, ikastaroaren aprobetxamenduaren aldeko txostena.

Certificado de la dirección de la escuela de música/conservatorio, recogiendo los datos correspondientes a la alumna o alumno, curso y nivel cursado, nivel superado y porcentaje de asistencia. En su caso informe favorable de aprovechamiento de curso.

Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, laguntza lehen aldiz eskatzen bada.

Fotocopia del Documento Nacional de Identidad de la persona solicitante en el caso de que se solicite la ayuda por primera vez.

ADIERAZTEN DUT

DECLARO

Irakurri ditudala eta onartzen ditudala deialdi hau arautzen duten oinarrietan jasotako baldintzak.

Que he leído y acepto las condiciones recogidas en las bases que rigen la presente convocatoria.

Nire erantzukizunpean, emandako datu guztiak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla

Bajo mi responsabilidad, que todos y cada uno de los datos aportados son veraces, exactos, completos y actualizados

SINADURA / FIRMA